

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa errendimendu altuko zentro bat da, non gure bezeroak haien erresistentzia maila hobetu ahalko duten beraien kabuz edo entrenatzaile pertsonalen laguntzaren bitartez. Berezitasun handi bat du besteekiko, gure makina batzuk, korrika egiteko zintek, bizikleta estatikoek... energia sortuko dute; energia hau saldu egingo dugu eta horrela gure helburu nagusienetako bat den autofinantzaketa erraztuko dugu. Gure enpresaren beste helburu bat energia ekologikoki lortzea eta hura baliatuz autofinantzatzea da. Horrela, zentral nuklearrek duten arriskua eta ikatza edo petrolioaren erretzean isurtzen diren gas kutsagarrien (horien artean karbono dioxidoa) kopurua murrizteko aukera izango genuke, energia "berriztagarri" bat energia enpresa handi bati salduz.

Gure bezeroak gure errendimendu altuko zentroa erabili ahal izateko hilabetero 40€-ko kuota ordaindu beharko dute. Ez da oso merkea, baina gure inguruan dauden gimnasio askoren berdina da, eta kasu batzuetan merkeagoa ere bai. Prezio esanguratsu honez gain, gure zerbitzua erabiltzean sortzen den energia ekologiko hori erabiliko dugu publikoki bezeroak erakartzeko. Beste hainbat gimnasiok dituzten makina berdinak eta beste hainbat baliabide aurki daitezke bertan, eta erresistentzian hobetzeko entrenatzaile pertsonalak eduki ditzakete bezeroek. Urdaneta 54an kokatuta egongo da eta 8:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara irekita egongo da. Ez da dutxarik egongo, ez baitago instalaziorik horretarako eta honen gastua handia izango bailiteke. Hala ere bi garbitzaile egongo dira eta hauek eta aldagelak beti txukun mantenduko dituzte eta egunaren bukaeran materiala bere lekuan dagoela bermatuko dute, higiena eta txukuntasuna, oso garrantzitsuak iruditzen baitzaigu bezeroen erosotasunerako. Hainbat arau daude: bezeroak gure instalazioak eta langileak errespetatu beharko dituzte; beste bezeroekiko ere errespetuz jokatu behar dute eta ezin da jan gure instalazioetan. Energia produzitzen duten makina motak erresistentzia hobetzeko erabiltzen dira; bizikleta estatikoa, arraun makina, zinta eta eliptikoa dira hain zuzen ere; beraz, gure bezero gehienak errendimendu altuko kirolariak izango direnez, (korrikalariak, txirrindulariak...) haiei erabilpen handiena ematea lortuko genuke, eta honen ondorioz, elektrizitate gehiago sortuko genuke. Elektrizitatea lortu ondoren, Nexus Energia enpresari salduko diogu eta diru horrekin gastuei aurre egin ahalko diegu.

Ezinbestekoa dela iruditze zaigu euskararen erabilera, eta edozein pertsonarekin lehen kontaktua euskaraz izatea bultzatuko dugu. Langileon arteko elkarrizketak beti euskaraz izango dira, noski. Norbaitek euskara ezagutzen ez badu, ingeleraz, frantsesez, gaztelaniaz eta alemanez hitz egiteko aukera ere izango du.